



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## Bizkaiak insektizida batzuk erabilteari itxiko deutso, Erleen kolonientzat kaltegarriak izan leitekezala-ta

Bilbon, 2013ko apirilaren 26an

Batzar Nagusien Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak aho batez onartu dau Foru Aldundiak baserritarrei “aholku” bat bideratzea, plaga jakin batzuen kontra borrokatzeko erabilten diran neonicotinoideen taldeko intsektiziden erabilerea ixteko, intsektizida horren erabilerak kalteak eragiten ditualako erleen kolonietan, azterlan zientifiko batzuk erakutsi dabenez. Bizkaiko Talde Popularrak (PP) Batzarretako gainerako taldeen eta Aldundiaren aldeko eretxia lortu dau, produktu horreek ordezkatzeko, “prebentzino neurri moduan” eta euren ordezkari Bizkaiko erleentzat hain kaltegarri ez diran beste batzuk erabilteko.

Azkenean, ekimenak Bilduko batzar taldearen hainbat zuzenketa-eske jaso ditu, Foru Aldundiak, fruituzainen, nekazarien, erlezainen alkarreak eta nekazaritzako sindikatuek batera, ordezkari intsektizidak zehazteko alkarlana bultzatu daian. Irene Pardok, Nekazaritza Diputatuak, Batzarren erabagia onartu dau, baina adierazo dau, imidacloprid, tiametoxan edo tiacloprid intsektizidak, beste batzuen artean, “legezkoak” dirala, Nekazaritza Ministerioak baimenduta dagozala, eta erakunde hori dala alor honetan eskumenak ditua. Foru Aldundia “aholkuak emotera” mugatu behar da. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, sektoreari jakinarazo jako proposamen hori.

Batzordean, proposamena aurkeztu dauen taldeak Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldearen zuzenketa-eske bat be onartu dau, behin betiko dokumentuak, Elikagaien Segurtasunerako Europar Agintaritzak (EFSA) urtarrilean egin eban gomendioa jaso daian, hain zuzen be intsektizida horreek ez daitezkan erabili “arbolak loratu aurretik eta loraldian”, horixe da-ta arriskuko sasoa erleentzat. Europako Batzordeak agindutako txostenotatik, talde jeltzaleak ataraten dau ez dala aurreikusten intsektizida horreen erabilpena kaltegarria izan daitekenik erleentzat, loratzera heltzen ez diran laboreetan. Dana dala, talde horrek eta Foru Aldundiak jakinarazo dabe Bizkaian ez dala inolako eraginik ikusi intsektizida horreen erabilerea dala eta.

### DEBEKUA LORTZEKO ERATU DAN SARE BATEGAZ ALKARLANA

PP-k batzarretan aurkeztu dauen beste Arauz Besteko Proposamen baten bidez, aho batez onartu da Aldundiari eskatzea “behar izan daitezkan lankidetzara eta informazio loturak” ezarri dagizala Plagizida Neurotoxikoak Debekatzeko Sareagaz (PNDS), horren helburuak jadesten lagundu eta eraginkortasun handiagoaz babesteko erleak eta enparauko polinizatzaileak. Ez dogu ahaztu behar erleak ezinbestekoak dirala planetaren aniztasunerako, mundu osoko landareen polinizazioaren %80 euren eskuetan dago eta, bi ekimenen bultzatzaileak, Arturo Aldecoak, PP-ko batzarkideak



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

adierazo dauenez. “Erleak existituko ez balira, milaka espezie desagertu egingo litzatekez”, gehitu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## Bizkaia recomendará el abandono del uso de ciertos insecticidas por su posible afección a las colonias de abejas

Bilbao, a 26 de abril de 2013

La Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales ha aprobado por unanimidad que la Diputación Foral traslade a los baserritarras una “recomendación” para abandonar el uso de insecticidas neonicotinoides utilizados para la lucha contra ciertas plagas, ya que su aplicación está afectando negativamente a las colonias de abejas, según algunos estudios científicos. El Grupo Popular Vizcaíno (PP) ha encontrado el apoyo del resto de grupos de la Cámara y de la Diputación para que estos productos sean sustituidos, como “medida de prudencia”, por otros menos dañinos para la apicultura vizcaína.

Al final, la iniciativa recoge varias enmiendas del grupo juntero Bildu con el fin de que la Diputación lidere, con la colaboración de las asociaciones de fruticultores, agricultores, apicultores y sindicatos agrarios, un trabajo conjunto para determinar los insecticidas sustitutivos. La diputada foral de Agricultura, Irene Pardo, ha aceptado la decisión de la Cámara pero ha advertido que el uso de insecticidas como el imidacloprid, el tiametoxan o el tiacloprid, entre otros productos, son “legales” y están autorizados por el Ministerio de Agricultura, que es la competente en esta materia. La Diputación solo puede “recomendar”. La responsable foral ha anunciado que ya han puesto en conocimiento del sector esta propuesta.

En la comisión, el grupo proponente ha aceptado también una enmienda del grupo Nacionalistas Vascos (PNV) para que en el documento definitivo se recoja la recomendación que hizo, en enero, la Autoridad Europea de Seguridad Alimentaria (EFSA) en el sentido de que estos productos no se utilicen “ni antes ni durante la floración”, que es la época de riesgo para las abejas. De estos estudios encargados por la Comisión Europea, el grupo jeltzale extrae que el uso de estos insecticidas no es perjudicial para las abejas en cultivos que no llegan a la floración. En cualquier caso, este grupo y la Diputación advierten de que en Bizkaia no se ha notado “ninguna afección” por su uso.

### COLABORACIÓN CON UNA RED CREADA PARA LA PROHIBICIÓN

A través de otra iniciativa no vinculante presentada por el PP, la Cámara vizcaína ha acordado por unanimidad pedir a la Diputación Foral que establezca “vínculos de colaboración e información permanente” con la recientemente creada Red Para la Prohibición de los Plaguicidas Neurotóxicos (RPPPN), a fin de colaborar en la labor de alcanzar sus objetivos de abandonar estos productos y proteger de forma más eficaz a las abejas, insectos vitales para la diversidad del planeta, ya que son los culpables del 80 por ciento de la polinización de la flora mundial, según ha explicado el impulsor de las dos iniciativas, el apoderado del PP Arturo Aldecoa. “Si no existieran, miles de especies desaparecerían”, ha avisado.